

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza <sup>info</sup>

Asteazkena, 2010eko abenduaren 1a. VIII. urtea. 2.132. zenbakia. [www.tolosaldea.hitza.info](http://www.tolosaldea.hitza.info)

## Tolosako Santa Maria elizako organoa inauguratuko dute bihar emanaldi batekin

Bere ezaugarriengatik balio historiko handia du 1884. urtean 35.000 pezeta ordaindu ondoren erosi zuten organoak

Elizako kaperak Felipe Gorritiren 'Te Deum' eta 'Salve Regina' abestuko ditu 20:00etan eta Jose Arzelusek joko du instrumentua **o2**




KLEK

→ **Titirijai estreinaldia.** Tolosako Txotxongiloen Nazioarteko Jaialdiak eskualdean itzuli bat emango du bihar, Ibarra Benito Izagirre kultur etxean 'Ran den mar' lana ikusgai izango baita, 18:00etan. Bien bitartean, estreinaldiek ikusleen arreta piztu dute. Atzo, Behi bis taldekoek euren azken antzezlan aurkeztu zuten Tolosako kultur etxean, 'Paperezko istorioak' izenekoa **o5**

### Ibarrako Udalak presoan senideei berriro emango die diru laguntza

Orain bi urte kendu egin zuen; Amnistiaren Aldeko Mugimenduak «begi onez» ikusi du erabakia, baina «ez dela nahikoa» esan du **o3**



**Oskar Arantzabal**  
Ekonomialaria

«Euskal Herriak badu garatu daitekeen eredu propio bat, kooperatibismoa»

'Euskal Herriaren independentziaren bideragarritasuna'-ren inguruko hitzaldia egongo da gaur Leitzan, 19:30ean

Elkarrizketa **o6**

### Andia Kultur Elkarteak sortu dute historia eta kultura zabaltzeko

Tolosako eta Nafarroako hogei lagun inguruk bultzatu dute, horien artean Juan Garmendia Larrañaga antropologoa eta etnologoa **o3**

Santa Maria elizako organoak balio historiko handia du bere ezaugarriengatik, eta horiek aldatu gabe mantendu delako; zaharberritu eta gero, bihar inauguratuko dute emanaldi batekin

# Balio handiko altxor ezkutua

Iñigo Terradillos Tolosa

**B**i urte baino gehiago zaharberritzen aritu ostean, bihar Santa Maria elizako organoaren doinuak entzuteko aukera izango da berriro ere. Bisita eta emanaldi berezia antolatu dute horretarako, «uneak eta instrumentuak berak hala merezi baitute».

Eta, ez da gutxiagorako, Santa Maria elizako parrokoak Jesus Maria Arrietak azaltzen duen bezala, «bai liturgia bai eta kultura alorretik begiratuta, balio handiko altxorra» baita organoa. Duen tamaina eta edertasunarengatik ez ezik, ezaugarri guztiak bere horretan, aldaketarik apenas egin

gabe mantendu delako du balio hori, eta Euskal Herrian gisa horretako bakarretakoa dela esan daiteke.

## Mende bat baino gehiago

Organoa 1885. urteko apirilaren 12an inauguratu zuten. Organo barroko zaharra aldatzeko premia ikusi zuten, eta bai Udalaren bai eta hainbat herritarren laguntzari esker, Frantziako Stolz Freres etxeko organo bat erosi ahal izan zuten, 35.000 pezetako prezioan. Organo zahararen kaxak balio handia zuenez, berria bertan egokitzea erabaki zuten. Urtebete iraun zuten organoa eraikitzeko lanek.

Sistema mistodun organoa da, 56 nota dituen hiru eskuzko teklatuarekin eta 27 nota dituen pedalezko teklatu batekin. Nota horiek guztiak egikaritzeko tamaina txiki nahiz handiko eztainu eta egurrezko 2.300 hodi baliatzen ditu.


Santa Maria elizako musika jartzeaz arduratu zen organoa, 1991. urtean ezbarra izan zuen arte. Izan ere, elizako sabaia konpontzen ari zirela, harri handi bat erori zitzaion gainera, bere fun-

## 1885. urtean inauguratu zuten; 35.000 pezeta ordaindu zituzten

tzionamenduan ondorio larriak sortuz. Hainbat konponketa egin zituzten gerora, baina ez zuten lortu organoa bere antzinako egoerara itzultzea. Horregatik, erabat zaharberritzea erabaki zuten, adituen esku utziz.

## Bi urteko lana

Denis Lacorre organogile frantziarrak koordinaturiko lan taldea aritu da 2008az geroztik konponketa lanetan. Lehendabizi organoaren pieza guztiak banan bana desmuntatu zituzten. Horiek Frantziara eraman, bertan konpondu, eta aurtengo ekainetik Santa Maria elizan aritu dira muntatzen. Euren lana, ordea, muntatzeetik haratago joan dela azaltzen du Lacorre: «Organoa-



Bere itxura mantendu duen organo bakarretakoa da Santa Maria elizakoa. I. TERRADILLOS

ren berezko izaera errekupeztzea izan da gure helburua, eta horretarako lehen zituen doinuak ongi ezagutu eta horiek mantentzen saiatu gara».

420.000 euroko kostua izan dute zaharberritze lanek. Gipuzkoako Foru Aldundiak erdia ordaindu du eta Tolosako Udalak laurdena. Gainerakoaren ardura parrokiak hartu du, eta honek aurreko bi erakundeek nahiz Kutzak, Organoaren Lagunek edota hainbat tolosarre eskaintako babesa eskertu nahi izan du, «horien laguntzarik gabe ez zelako posible izango organoa martxan jartzea».

## Altxor gehiagoren jabe

Bihar izango da lan horien emaitza ikusi eta entzuteko aukera. Lehendabizi organoa erakutsiko dute, eta ondoren honen musikaz gozatu ahalgo da. Pantaila erraldoia ere jarriko dute, Jose Arzelus organo-jolearen lana ikusteko.

Santa Maria elizak, ordea, organoaz gain altxor gehiago ere ezkutatzen ditu, eta horiek aurrera begira bisitariarentzat irekitzea ari da aztertzen Udala. Modu horretan, elizako ganga gaineko zureria ezagutu ahalgo litzateke, eta Tolosako ikuspegi ederrez gozatu kanpandorreetatik.



Denis Lacorre organogile frantziarra organoaren. I. TERRADILLOS

## ↓ Ekitaldiak

### ABENDUAK 2, OSTEGUNA

■ **19:00.** Parrokiako zenbait gune ikustatzea: probintziako agiritegi izandakoa, korua, ganga eta bobeda gaineko zureria.  
■ **20:00.** Organoaren bedein-kapena. Santa Maria Kaperak Felipe Gorritiren *Te Deum* eta *Salve Regina* abestuko du, eta Jose Arzelusek organoa joko du.

### ABENDUAK 10, OSTIRALA

■ Jesus Martin Mororen organo kontzertua. Pantaila erraldoian ikusi ahalgo da.

### ABENDUAK 17, OSTIRALA

■ Esteban Elizondoren organo kontzertua. Pantaila erraldoian jarraitu ahalgo da.



**2011 agenda**

Dagoeneko salgai!



**12€**

- Liburu dendetan
- [www.euskalherriko-plaza.com](http://www.euskalherriko-plaza.com)

## Ezaugarriak:

- Hiru urtetako egutegia
- Intereseko telefonoak
- Euskal Herriko errepide mapa
- Aste osoa ikusgai

Aukera ezazu, bizi euskaraz **berria**

# Udalak presoen senideei diru laguntza emango die berriro, bi urte eta gero

Amnistiaren Aldeko Mugimenduak «begi onez» ikusi du erabakia, baina neurria ez dela «nahikoa» esan du

**Erredakzioa** Ibarra

Ibarrako Udalak presoen senideei diru laguntza emateko erabakia hartu du. Bi urte inguru pasatu dira laguntza hori kendu zutela eta orain berriro emango die. Bidaia gastuetarako izango da laguntza. Senideek egiten duten kilometro bakoitzeko 0,11 euro jasoko dituzte eta gehienez hilabete bidaia bat finantzatu-

ko du Udalak. 800 euro (oinarriko soldatari %25a gehituta) edo gutxiagoko soldata duenari hilabete bidaia finantzatzeko ditzio.

Diru laguntzaren onarpenean Hamaikabat taldeko lau kideek aldeko botoa eman zuten, EAJko bi kide ere aldeko botoa eman zuten eta beste kide bat abstentitu egin zen, Ezker Batua-Berdeak-Aralarreko kidea ere abstentitu egin zen eta PSE-EEren bi kideek kontrako botoa eman zuten.

## «Herriaren garaipena»

Ibarrako Amnistiaren Aldeko Mugimenduak «begi onez» ikusi du Udalak diru laguntza onartzea, «baina batez ere Ibarrako he-

rritarrek zoriondu» nahi izan ditu. «Arau honen onarpenean herriaren garaipena da, mobilizazio eta protesten emaitza».

AAMk, baina, uste du «ez dela nahikoa» onartutako diru laguntza, «dispertsioaren politika kriminalak sortzen duen gastuen %20a bakarrik ordaintzen baititu». Udal aurrekontuetan ere eragina duen «krisi kapitalista» dagoela ulertzen du AAMk, baina uste du herstura politika «ezin dela izan beharrean daudenei modu garbiagoan ez laguntzeko aitzakia. Are gutxiago udal ordezkari horien artean soldata ederrak banatzen dituztenean udal aurrekontutik, eta kontuan hartuta 11 ordezkarietatik bost ez di-

rela herritarren botoen bidez azkeratuak izan».

## Udal ordezkarien eta AAMren arteko elkarrizketak

Diru laguntzen onarpenean azken hilabeteetan udaleko ordezkariekin izan diren elkarrizketak azpimarratu ditu presoek eskubi-

## Senideek kilometroko 0,11 euro jasoko dituzte; hilabete bidaia bat gehienez

deen aldeko ekimenak. «Nahi baino geldoa eta baldintzatuagoa izan bada ere, hartuemanan egon da, hizketa, eta horrek poza

ematen digu», azaldu du AAMk, eta gaineratu: «Arazoak mahai baten bueltan hitzeginez hobeto konpontzen direla erakusten du».

PSE-EEko kideei ere hitz bazuk luzatu zizkion AAMk. «Gerraren benetako alderdia bihurtu da», azaldu du. Euskal Herriko eragile politiko eta sozial «gehiak pausoak ematen ari direnean gatazka politikoari irtenbide elkarrizketatua eta demokratikoa emateko, PSOE itxikeriarekin, errepresioarekin eta torturarekin erantzuten ari da». Eta gaineratu du PSE-EEk ezin duela «entzregor egin irekitzen ari diren aukera berrien aurrean».

Bere aldetik, «injustizia oro salatzen jarraituko» dutela azaldu du AAMk, preso eta errefuxiatuak «gogoan izango» dituela eta «errepresioaren biktimak babestu» egingo dituela. «Aldi berean, edozein arazo edo oztopo, hitzeginez eta mahai baten bueltan konpontzeko ahalaginak egingo dituztela» berretsi du.

# Andia Kultur Elkarte, historia eta kultura zabaltzeko

«Euskal kultura eta oro har tokiko kultura» dute interesa elkartearen kide diren hogeitaz lagun inguruk

**Erredakzioa** Tolosa

Tolosako hainbat lagunak eta zenbait nafarrek Andia Kultur Elkarte eratu berri dute. Elkartearen helburua Oriar bailararen eta horren mugan dagoen Nafarroako lurralde zatiaren historia eta iraganeko kulturaren berri ematea da, ikerketa eta dibulgazio lanen bidez.

Hogei bat lagunak osatzen dute elkarte eta bertako kide dira, besteak beste: Juan Garmendia Larrañaga, Jose Antonio Recondo, Jose Leon Eguiguren, Mikel Telleria, Joxemari Iturralde, Antxon Bandres, Ander Letamendia, Juan Agirre, Ramon Labaien, Jose Luis Orella Unzueta, Peio Monteano, Patziku Perurena eta Juan-txo Aleman. «Euskal kultura eta oro har tokiko kultura interesa dutenak» direla esan dute.

Elkartearen ibilbidea hasi berriek ez dela eta besoak zabaldua jasoko dutela «bertan parte hartu nahi duen edozein», diote. Hala, elkarteak izaera «plurala» izatea nahi dute, «osaketa heterogeneoa eta independentea duena, hau da, bertako kideen artean sinisbide eta ideologia ezberdinetakoak egotea».

Euskara eta gaztelera erabiliko dituzte, baina euskararen aldeko diskriminazio positiboa egingo dutela azaltzen dute. Bestalde, kultura «modu erangikor batean



Ezkerretik hasita, elkarte zentzuzko kide: Iturralde, Letamendia, Kouri, Agirre, Recondo, Garmendia, Eguiguren, Labaien, Telleria, Aleman eta Perurena. I. TERRADILLOS

zabaltzeko» ez dute uste nahikoa denik idatziz edo ahoz bakarrik egitea eta komunikatzeko beste modu batzuen alde ere egiten dute: ikus-entzunezkoak, musika, artea, antzerkia, zinema...

Andia Kultur Elkartearen asmo garrantzitsua aldizkaria ar-

gitaratzea da, paperean zein in- terneten, hiru edo sei hilero. Egun asmo hori gauzatzea ez dela posible diote, baina datorren urtearen bukaerarako martxan jar- tzea espero dute. Bestalde, urtero beka bat sortzeko asmoa dute, in- guruko eremuari eta kulturari

buruzko gairen bat ikertuko du- na. Asmo hori, baina, epe luze- gora ikusten dute.

## Egitasmoak

Epe laburrera begira, hainbat egi- tasmo ditu Andia Kultur Elkar- teak, zehazki datorren urteko lehen

hilabeteetan. Horietako bat lau hitzaldiz osatutako zikloa izango da, Tolosako paperaren eta arte grafikoen historiari buruzkoa. Bestalde, Fronton kafetegian ar- gazki erakusketa jarriko dute, hain justu, Fronton kafetegiari buruzkoa, bere 75 urteak gogora- tuz.

Horrez gain gela dibulgatzaile bat diseinatu dute elkarteok eta horren harira harremanetan jarri dira jubilatuen egoitzako zu- zendaritzarekin, Orixe institutu- ko zenbait irakasleekin eta Tolo- sako Udaleko Gizarte Zerbitzuen sailarekin.

Esku artean duten egitasmo nagusia *Tolosa eta frantzia- rrak* gaiaren inguruan udala antolatzen ari den ekitaldietan parte hartzea da. Horretarako, elkar- tetik ekitaldi bat prestatzen ari dira, «Kultur sailarekin batera antolatu daitekeena». Kale ikus- kizuna egiteko asmoa dute, jende askoren parte-hartzearekin, eta bertan desfilea egingo zen, musi- kariak eta abesbatzak parte har- tuz.

**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

www.euskalherriko  
**PLAZA.com**

% 10eko deskontua

**PAGOA**

**Tolosaldea** ›**Irudia** › Villabona**XAXI IZAN DA FLEMING ESKOLAN**

Aurten ere Villabonako Fleming eskolako Haur Hezkuntzako ikasleek, Xaxi ipotxaren bisita jaso dute. Oporrak mendian igaro ostean, urtero bezala, Arroako txikiengana hurbildu zen. Haurrek prestatutako abesti eta marrazkiekin, ongi etorri beroa jaso zuten Xaxik. Euskaraz hitz eginez, guztiek ongi pasa zuten. HITZA

**Irudia** › Tolosa**GIPUZKOAKO XAKE TXAPELKETA**

Gipuzkoako banakako txapelketak amaitu dira. Donostian bigarren mailakoa jokatu zen eta Jokin Mendia tolosarra hirugarren izan zen lehen mailara igoz. Tolosan, hirugarren mailakoa jokatu zen. Lehia bizi baten ondoren Andoni Cotta beasaindarra, Aitor Alkorta billabonarra eta Cayetano Otaegi tolosarra izan dira mailaz igo direnak. HITZA

**Villabonako batzar aretoan ohiko osoko bilkura egingo dute 20:00etan****Erredakzioa**

Gaur 20:00etan udaletxeko batzar aretoan, ohiko osoko bilkura egingo da. Bertan ondorengo gainerrenda landuko dute udal ordezkariak: aurreko bilkurari dagokion akta onartzea (urriak 27koa); Larrea auzoan lurpeko aparkaleku-plazen herri-jabari-ko emakida esleitzeko baldintzen agiria aldatzeko proposamena onartzea eta Diru kontuak ikuskatzeko enpresa baten zerbitzuak prozedura irekiz esleitzeko proposamena.

Jarraian, Villabonako nerabe-  
ei zuzendutako zerbitzua prozedura irekiz esleitzeko proposamena. Villabonan etxeko laguntzarako programa emateko Fepas enpresarekin sinatutako administrazio kontratu berezia urte betez luzatzeko proposamena luzatuko dute. Berezko aurrekontuko kreditu aldakuntzari dagokion espedientea (5. zenbakia duena) onartzeko proposamena.

Eta osoko bilkurari bukaera emateko, erreguak, mozioak eta galderak egiteko aukera izango da.

**Iragarki laburrak****SALGAI**

■ **Ekonomika.** Lakuntza markako ekonomia, klasika modelokoa. Egoera onean eta oso gutxi erabilia. Interesatuek deitu 649 590 149 telefono zenbakira.

**Ritxi Lizartzaren eskutik hitanoari buruzko hitzaldia gaur 19:00etan**

Hika egiten dutenei edota egitea gustatuko litzaiekeen zuzendua dago. Udalak ikastaroa ere antolatu nahi du

**Erredakzioa** Anoeta

Anoetako Udalak, Euskararen eguna ospatu asmoz, hitzaldi interesgarri bat antolatu du gaurko. Hitzaldi hau, hitanoari buruz izango da (kalean "hika" esaten dioguna). Hizlaria, Ritxi Lizartza izango da eta Anoetako udaletxeko pleno aretoan izango da 19:00etatik aurrera.

Hitzaldia, hika egiten dutenei, hika egitea gustatuko litzaiekeen, hika egitean zalantzak dituztenei edota hika modu txukunago batean egin nahi dutenei zuzendua dago. Hau da, herritar guztiak joateko modukoa da.

Hitzaldi hau beroketa ariketa bat izango da, Anoetako Udalak ikastaro bat antolatu nahi baitu datorren urte hasierarako. Ikastaro horretan, 16 urtetik gorako euskaldun zahar nahiz berriek (EGA maila badute) parte hartzeko aukera izango dute, hika egiteko ohitura izan ala ez izan.

Interesa duten herritarrak, «hitzaldira etortzera animatu nahi ditugu» diote udaletik.

**'Alaskatik Ushuaiara 22.000 kilometro bizikletan' proiektzia**

Gaur 20:00etan izango da Joanes Gibelalderen eskutik. Bukaera emateko bihar haur eta helduen txanda

**Erredakzioa** Amezketza

Astelehenean eman zioten hasiera Amezketako Mendi Asteari eta bihar bukatuko da. Txindoki, Andeak, K2 eta Pakistan inguruak ezagutu ostean, gaur 20:00etan, *Alaskatik Ushuaiara 22.000 kilo-*

*metro bizikletan* ikusi eta entzuteko aukera paregabea izango da. Joanes Gibelalde tolosarraren eskainiko du herri zentroan.

Bihar, herriko umeek ere arratsalde ona pasatzeko aukera izango dute. Beraien emanaldia 17:30ean hasiko da. Kasu honetan, *La Odissea de Maud Fountenoy* filma ikusteko aukera izango dute.

Eta aurtengo Mendi Asteari bukaera emateko 20:00etan, *Everesteko trekina*, *Nepal* emanaldia eskainiko dute. Mañu eta Iñaki izango dira hizlariak.

**→ Laburrak****Elkartea antolatzeko bilera ostiralean**

**BELAUNTZA** › Belauntzako udalak elkarte bat antolatu nahi du Martintxon. Horretarako, interesa duten belauntzar guztiei (herrian bizi direnei edota herrian jaio direnei) deitzen diete. Ostiralean, hilaren 3an, 20:00etan, Belauntzako kultur etxean egingo den bileran parte hartzera animatu nahi dituzte.

**Aian izandako istripuan zizurkildar bat hil da**

**ZIZURKIL** › Astelehen goizean, Aiako N-634 errepidean bi autoren arteko istripua izan zen. Bertan, Zizurkilgo 42 urteko gizona zauritu zen. Nahiz eta medikuak bertaratu eta erreanimatzen saiatu ziren, ezin izan zuten ezer egin bizia salbatzeko. Beste autoko 26 urteko gaztea larri zauritu zen.

**Mendebaldeko Saharari buruzko hitzaldia bihar**

**ALEGIA** › Bihar osteguna, Mendebaldeko Saharari buruzko hitzaldia izango da Alegiako Kultur Etxean. 19:00etan hasiko da eta Askapenaren eskutik izango da.

**Argazki lehiaketako irabazleen sari banaketa**

**ANOETA** › Gaur hitzaldiaren aurretik, 18:30ean, aurtengo argazki lehiaketako sari banaketa egingo dute. Argazki horiek 2011 urteko udal-egutegia osatuko dutenak izango dira. Udal egutegia herritar guztien etxetara banatuko da.

**Dirulaguntzen bigarren zatia kobratzeko**

**ZIZURKIL** › Aisia, Kirola, Kultura, Hezkuntza, Gaztetxo eta Euskararen inguruko ekintza interresgarriak diru laguntza jasotzen dute. Eskaerak egitean, %75a kobratzen dute eta gainontzeko %25a memoria edota fakturak aurkeztu ostean. Bigarren zatia kobratzeko beharrezkoa da memoria edo fakturak, urtea bukatu baino lehen aurkeztea. Aurkeztu ezean, ez da kobratuko.

**Durangoko Azokara joateko autobusa**

**TOLOSA** › Galtzaundik, abenduaren 4ean Durangoko Azokara joateko autobusa antolatu du. Irteera 09:30ean izango da tren geltokitik eta Durangotik itzulera 19:00etan egingo dute. Izena Galtzaundiko egoitzan bertan eman daiteke edota 943 65 50 04 telefono zenbakira deituz. Bartzideek, 10 euro ordaindu beharko dute eta gainerakoek 12 euro.

**Laskoraingo Merkatu Txikia prestatzeko lanak**

**TOLOSA** › Laskorain Ikastolak Merkatu Txikia antolatuko du. Gabonetan izaten da eta pres-taketa lanak hasi dituzte. Hori dela eta, gaur, Batxilergoko 1. mailako ekonomiako ikasleak dendetatik pasako dira aurtengo asmoen berri emateko.

**Igarondo eta Alde Zaharra dendak elkartuko dira**

**TOLOSA** › Bihar, 19:45ean udaletxean elkartuko dira Igarondo eta Alde Zaharra dendak bakoitza bere aldetik. Ondoren, 20:30ean Tolosa & Co osatuko dute pleno aretoan.

# Eskualdera zabaldu ditu leihoak Titirijaik

Txotxongiloen Nazioarteko Jaialdiko saioetako bat izango da bihar Benito Izagirre kultur etxean.

**Erredakzioa** Ibarra

28. Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiaren baitan, Herrialde Katalanetako Marti Doy taldeak *RanDe Mar* lana aurkeztuko du bihar Ibarra. Emanaldia Benito Izagirre kultur etxean izango da 18:00etan.

Marti Doy-k zuzendutakoa lanean itsasoaren inguruan jositako lau istorio txiki kontatzen dira. Denetan, txotxongiloak dira protagonista. Itsasoa abiapuntutzat hartuta, abentura epikoen ageritoki bilakatzen da, izaki eta pertsonaia fantastikoz betea, kulturen arteko zubi, itsasturien eremu, uharte bat naufragio eta

palmera eta guzti, piraten eta altxorren uharteak...

**Bartzelonatik datorren taldea** Istorioak kontatzeko gogoak mugiturik, Pep Farres-ek, Jordi Farres-ek eta Jordi Palet-ek ahalegin eta gaitasunak batu zituzten, jarduera hau bizibide bihurtzeko. Horretarako, irudimen handia, lan asko eta traste, keinu, hitz eta txotxongilo piloa erabili dituzte. Askotan jorratu ez diren gaiak ukitzea gustatzen zaie, modu berezi eta ez moralizatzailean.

*Operación AVI-n*, beraien lehenengo ikuskizunean, zahartzeaz hitz egin zuten, *Txano Gorritxo*, *Barbantxo* eta ipuinetako beste zenbait pertsonaia agure bihurtuta ikusten genituen bitartean. *El Rey de la casa*, anai-arreben arteko jeloskortasunaz eta boteregoseaz ari zen. Eta *OVNIan*, familiaz hitz egiten dute, gurasoen maite ez duten neska koskor bat aitzakia hartuta.



'Ran den mar' lana ikusgai izango da bihar Ibarra. HITZA

## Aurrerako bazkideentzat Gabonetako loteria salgai izango da bihar

**Erredakzioa** Leitza

Aurrera elkartearen Gabonetako Loteria salgai jarri dute. Aurten go zozketarako aukeratutako zenbakia 62.055 da. Bazkide bakoitzak 10 euroko bi txartel erosi ahal izango ditu. Aurreran bertan eskuratu ahal izango dira bihar eta amaitsu arte egongo dira salgai. Horretarako ordutegi bat ere jarri dute, 19:00etatik 21:00etara bitartekoa.

## II. Banabar jatea ospatuko dute larunbat honetan Torrea herrikoan

Txartelak 15 eurotan erosi daitezke; bazkaria eta gero, Euskal Herriko mus txapelketako bigarren kanporaketa

**Erredakzioa** Leitza

Bigarrenez Banabar jatea antolatu dute Torrea. Hau larunbat honetan izango da, hau da, hilaren 3an, eguerdiko ordubietan. Interesatuek 15 eurotan erosi ditzakete txartelak. Menua ondorengo izango da: banabarrak odolkiarekin, antxume errea letxugarekin, izozkia, kafea eta kopa. Izena emateko epea bihar amaitzen da.

Bazkalostean Euskal Herriko mus txapelketako kanporaketetako bat jokatu da. Azaroaren 16an Iruñean aurkeztu zuten. Leitzako ligaxkako lehen partida azaroaren 27an jokatu zen Peritzan. Asteburu honetakoaz gain, beste bi jokatu dira abenduan. Fimala hilaren 18an izango da Torrea bertan.

**Patricia Franco** • Behi Bis taldeko kidea

# «Guregandik oso gertu dauden bi errealitate ezberdin erakusten ditugu»

**Esti Ezeiza** Tolosa

Titirijain bi ikuskizun estreinatuko dira, eta lehenabizikoaren txanda atzo izan zen. Kultur Etxean aurkeztu zuten Behi Bis taldekoek bere azken lana, *Papezko istorioak* izenekoa.

**Zer nolako harrera izan du estreinaldiak?**

Harrera oso ona. Helburuak lortu ditugula esan dezakegu.

**Txotxongilo jaialdian estreinatutako zuzen azken lana. Zergatik aukeratu duzue hau?**

Tolosan aurkeztea erabaki ge-

nuen, emanaldia ezagutzera emateko eta publizitatea egiteko toki egokia baita.

**Hiru haurren istorioa kontatzen duzue lanean.**

Alde batetik, Lutxi dago, denetik duen haurra, eta bestetik, zabortegi batean bizi diren Juan eta Violeta anai-arrebak. Hauen istorioak elkartu egiten dira Tronpi txakurrari esker.

**Lan honekin mezu garbi bat zabaldu nahi izan duzue ezta?**

Bai, bertan erakusten dugu, batzuk denetik dutela eta beste batzuek berriz, ezer ere ez. Baina

aldi berean, denak ere ez dira zoriotsu. Horregatik, erakutsi nahi duguna da, imajinarioarekin eta lagunekin gustura bizi daitekeela.

**Zuek kontatzen duzuen istorio hori, hemen etxe ondoan ikusi litekeen horietakoa da.**

Bai, hori da, guregandik oso gertu dauden, baina aldi berean, horren ezberdinak diren bi errealitate erakutsi nahi izan dizkiogu publikoari. Tolosan nahiz Donostian topatu daitezkeenak.

**Jendeari pentsaraztea da lortu nahi zenuena orduan.**

Bai, gure asmoa beti hori izaten da. Antzerkia oso garrantzitsua da guretzat, baina aldi berean, mezu bat zabaldu nahi izaten dugu, eta haurren eragitea.

**Ikusgarritasunak ez al du askotan, mezu hori estaltzen?**

Bai, eta azken batean, bi elementuen arteko oreka aurkitzea da erronka nagusietako bat. Biak ere landu behar baitira.

**Tolosaldean, hainbat emanaldi lotuak izango dituzue jada.**

Bai, igande honetan Igantzin (Nafarroa) izango gara. Honez gain, saio gehiago eskainiko ditugu.

EZAGUTU  
WEBGUNE BERRIAK

**www.TOLOSALDEA.hitza.info**

**www.IBARRALDEA.hitza.info**

**www.VILLABONA-AIZTONDO.hitza.info**

**www.ALEGIALDEA.hitza.info**

**www.LEITZALDEA.hitza.info**

**www.ANOETALDEA.hitza.info**

**www.TOLOSA.hitza.info**

## Oskar Arantzabal ◉ Ekonomialaria

Euskal Herria bezalako estatu txiki batek nazioarteko ekonomian duen tokia eta etorkizuna hizketagai izango da gaur.

# «Bizi maila altua dugu baina burujabe izanik, hobea genuke»

Esti Ezeiza Leiza

Nafarroaren egunaren harira, hainbat ekitaldi ari dira burutzen aste honetan zehar Leitzan. Gaur esaterako, Oskar Arantzabal ekonomialariak hitzaldia eskainiko du 19:30ean. *Euskal Herriaren independentziaren bideragarritasuna* jarri dio izenburu solasaldiari eibartarrak.

Bestalde, egun hauetan ikusgai da udaletxeko Batzar Aretoan, *Nafarroa, euskal estatua* erakusketa.

**‘Euskal Herriaren independentziaren bideragarritasuna’ izena du hitzaldiak, beraz, Euskal Herria independentea balitz, ekonomikoki bideragarria izango al litzateke?**

Bideragarritasunaren kontzeptua oso erlatiboa da, bada, Tuvalu moduko estatu bat 11.000 biztanlerekin eta inor gutxi jartzendak zalantzan bere independentzia. Gutxienez 60 estatu daude Euskal Herria baino txikiagoak. Kontua da, bizi maila ona dugula, baina, geure buruaren jabe eginez, hobeto bizi gintezkeela.

**Beste ekonomia eredu bat sortzea posible izango al litzateke, kapitalismotik?**

Inguruan Europako Batasuna dugu, kapitalista dena, eta hortik kanpo bizimodu zaila: Paradisu fiskal bihurtu? Euroa ez den beste moneta bat jaulkitzea garesti aterako litzaziguke eta mendebaldeko soziologian beste eredu ekonomiko bat sortzea nekeza. Dena dela, Euskal Herriak kooperatibismoa moduko eredu propio bat badu, oso gurea dena, auzolanean oinarritua, eta estatu propio batekin garatu daitekeena bere osotasunean. Estatu txikietan halako *esperimenduak* egin daitezke arrisku handirik gabe, esate baterako Danimarkak badu lan merkatuan *flexiseguritatea* deritzona eta oso ondo doakie.

**Gaur egungo ekonomia ereduarekin posible izango al litzateke burujabe izatea? Eta hau horrela ez balitz, nondik hasi beharko litzateke aldaketzen?**

Ekonomia eredu aldaketzen ari da,

paradigma berrian estatu txikiak izango dute protagonismoa (malguagoak dira aldaketa azkarretarako, eraginkorrak barne kudeaketarako, kohezionatuaokoak soziologikoki, espezializatuak eta lehiakorrak mundu globalizatuan...). Garai batean zenbat eta inperio handiagoa hobe, baina eredu autarkiko hori amaitu zen. Merkatuen irekitzearekin gero eta errazago da mendekotasuna gainetik kentzea. Horrela ulertu dute Eskozia eta Katalunia moduko nazioek. Gure esportazioak Espainiako merkatura murrizten ari dira eta beste batzuetara iristen ari gara, balizko boikot baten beldurra uxatuz.

**Gaur egungo egoera, Espainia eta Frantziarekiko mendekotasuna eta lotura, zama bat al da Euskal Herriko ekonomiantzat?**

Espainiako garbi dago baietz, Europako ekonomia *gaixo* horietako bat dugu (Grezia eta Irlanda bezalaxe: langabezia, zorra, hazkunderik gabe, kaudimen eza), lehiakorra ez den eredu produktibo batetik atera ezinik (eraikuntza eta turismoa). Sinesgarritasunik gabe, ordaindu beharreko interes altuegia da eta guri kalte egiten digu. Frantziaren kasuan, berriz, Ipar Euskal Herria guztiz abandonatua du eta garatzeko asmorik gabe. Ez da harritzeko Laborantza Ganbera moduko *desobediencia ekonomiko*, egitura propioak izateko eskaerek (departamentu edo autonomia) beti ezetza jaso baitute. Merkatuen dibertsifikazioak onurak ekarriko dizkigu.

**Europako ekonomiarekin alderatuta, non kokatzen da Euskal Herria?**

Batez bestean pare, gure eredu oso industrial da, Alemania-kotik gertu eta, adituen arabera, kritikik ateratzeko azpimarratzen ari diren bi kontzeptutan —berrikuntza eta nazioartekotzea— maila ona erakusten ari gara. Bizimaila hoberenetarikoa bat dugu biztanleko errentan eta giza garapenean, nahiz eta aberastasuna zertxobait hobeto bana daitekeen. Hala ere, modan dago-



BERRIA

en indize berrian, zoriontasuna neurtzea alegia, alde kualitatiboagoak kontuan hartzen duena, ez dakit non egongo ginatekeen, baina estatu propioak gabe gure gaitasun guztiak garatu ahal izateko, ez hain zoriontsu. Askatasuna faktore ekonomiko moduan ere ulertu behar da.

**«Zenbat eta estatu gehiago munduan, are demokratikoagoa izango da bera»**

**«Euskal Herriak badu eredu propio bat, kooperatibismoa, eta hau garatu daiteke»**

**Zure iritziz, estatu baten tamaina egokiena bost milioi biztanletakoa omen da, zergatik?**

Massachusetts Institute of Technology-k *The size of nations* (Nazioen tamaina, 2003) liburua argitaratu zuen estatu baten tamaina ideala aztertzeke eta txikien abantailak azpimarratuz. Kenichi Ohmae japoniarrek ere milioi bat eta hamar artean dagoela dio, marka bat garatzeko egokia bost bera. Teoriaz gain, hainbat aldagai estatistiko kontuan hartuz (aberastasuna, giza garapena, elkartasuna, gardentasuna, berrikuntza, etab.) beti hurrenkera berdinetara iristen zara: Danimarka, Norvegia, Zeelanda Berria, Singapur, Costa Rica... kopuru horietan dabilzanak.

**Baina salbuespenak ere egon badaude.**

Bakarrak Alemania eta AEB dira, baina beraien egitura federaletan erreparatu, ondorio berdina garamatzate: zati bakoitzaren populazio osoa (80 eta 300 milioi hurrenez hurren) zati federazio kopurua (16 eta 50) eta bost-bueltan zabilta.

**Hala ere, Euskal Herria ez da kopuru horietara iristen.**

Euskal Herria ez dabil urrutiri bere hiru milioiekin, eta gainera sarritan ahaztu egiten zaizkigu lotura historiko eta ekonomikoak inguruko herrialdeekin (Errioxa, Biarno, etab.) edota gure diaspora (Gaindegiak bildutako datuen arabera, euskal jatorrikoak munduan, bertan bizi garenok baina gehiago dira!).

**Bere burua aski duen estatu bat edo, esportazio eta inportazioetan oinarritzen den estatu bat da indartsuagoa?**

Gaur egun *interdependentzia* bizi dira estatu guztiak, autosufizientziaren garaia joan ziren. Lehen muga politikoak eta ekonomikoak berdinak ziren, horrela sortu zen Europako inperioen hedapena: kolonietako lehengaiak ekarri, zergak bildu armadak indartzeko eta erosle gehiago izan. Irekitzeak munduaren ongizatea sustatu du.

**Are gehiago, estatu txikiak zoriontsuenak direla ere baieztatzen duzu. Aski ezezaguna den Bhutan bu-dista izan zen lehena bere hiritarren zoriona neurtzen, immaterialek ziren irizpideak erabiliz.**

Baina bestela ere, alde materiala hartuz, ranking horretan agertzen zaizkigu: Danimarka, Suitza, Austria, Finlandia... Bruselak, Londresek eta Parisek hemendik gutxira jarriko dute indize hori martxan, aberastasun maila egonkor batetik aurrera heritarrek alde kualitatiboak he-nesten dituztelako: ekologia, kultura, osasuna... Horikusiko da estatu handietan jendea ez dela hain zoriontsu, tamainaren abantaila gailentzen zaizkiolako heterogenotasunaren kostuak (geografikoak, kulturalak, errenta desorekak eta ideologikoak).

**Estatuen kopurua handituz joango dela iragartzen duzu. Honen arrazoi edo oinarria ekonomia al da?**

*The Economist* aldizkariak ere horrela dio. Zenbat eta estatu gehiago munduan hainbat eta demokratikoagoa da bera (Freedom House AEBetako lobbyak egindako azterketak hala erakusten du). Azken hirurogei urte hauetan estatu kopurua hirukoiztu egin da. Kasu batzuetan bai, adibidez Sudan bitan banatuko da petrolioaren ustiatagatik, baina Palestinaren kasuan ez da halakorik. Nolanahi ere, zenbat eta hurbilago izan erabakiguneak, jendea identifikatuz sentitzen da. Europako Batasunak duen paradoxetarikoa bat da handitzen joan dela (eta itxoste zerrenda luzea dago) etxe barruko mugak konpundu gabe: hor da Belgika edota euroa bera eta *erreskate* planak. Zor zatikatuak eramangarriagoak dira...

## Joxean Agirre ◉ Euskal Memoria Fundazioko kidea

Ibarrako Kultur Etxean, Jexux Peñagarikano herritarrek aurkeztuta, hitzaldia emango du gaur Agirrek, 19:30ean

# «Gutxitan izan gara guri gertatutakoaren narratzaile zuzenak»

Asier Imaz Ibarra

Herriz herri, auzoz auzo eta behar baldin bada, etxez etxe ibiltzeko asmoa du Euskal Memoria Fundazioak; «gure historia guk konta dezagun». Joxean Agirrek (Donostia, 1963) arrazoi garbia jartzen du: «Ibartarren historia herritarrek baino hobea ez du inork jakingo».

Dokumentazio guzti horrekin, gai desberdinen inguruan, urtero liburu bat argitaratuko dute. Fundazioaren babesleek etxean jasoko dute lan hau. Babesle izateko aukera hitzaldian bertan egongo da, baita Durangoko azokan ere. Guztira Euskal Herrian 6000 lortu nahi dituzte, «arnas luzeko proiektu hau sostengatzeko».

Hitzaldia 19:30ean hasiko da eta aurkezpen lanak Jexux Peñagarikano egongo ditu. *Xebas, Josetxo* eta Mikel Lopetegiren senideak bertan egongo dira.

**Proiektua duela bi urte inguru jarri zenuten martxan, eta jada lehen fruitua kaleanda.**

*Gernikako seme-alabak* izena duen liburua kalean da, bai. Azken 50 urteetan erreprezioak Euskal Herriari egin dion giza kaltea-

ren erradiografia da, nolabait. Gizalegezkooa iruditu zaigu beste biktimen gaiari heltzea.

**Bigarren liburuan, frankismora itzuliko zarete.**

Urtero-urtero helduko diogu historiografia ofizialak ukatu edo nolabait aldrebes kontatu dituen gaiei. Bigarren lana oso aurreratu daukagu, eta bai, frankismoaren ingurukoa izango da. Gerra osteko kolpe erreprezioa eta bere ondorioak nahiko landuta daude, Tolosaldean esaterako, izugarritzko lana dago egin horri buruz. ETA sortzen denetik aurrera ere, asko idatzi da. Ondorioz, bigarren liburuan, tarteko bi hamarkada horiek aipatuko ditugu.

**Hainbatek boterearekin bat egin zuen tartea.**

Soziologikoki frankismoa gehien sustraituzten hamarkadak izango dira. Eta horrek, euskal kulturari, gure hizkuntzari, kalte handia egin zion adibidez. Euskal Herrian frankista asko zeuden, eta askok poltxikoak bete zituen. Gure ustez hori ezkututzen saiatu dira, eta horri helduko diogu.

**Hirugarrengoa zer etorriko da?**

Oraindik ideia besterik ez dauka-



A. IMAZ

gu, baina torturaren gaiari helduko diogu, bere dimentsio politiko eta soziologiko guztiarekin.

**Azaroaren 10ean, Tolosako Lizardi elkarteak, herritarrek euren memoria aldarrikatzeko duten eskubideaz hitz egin zenuen. Hori al da proiektuaren eta Fundazioaren oinarria?**

Oinarria eta lan filosofia. Historia ulertzeko modu desberdinak daude. Gure ustez, historia herri xehek protagonizatzen du; eta ez horrenbeste jeneral handiek, erregeek edo gobernuburuek. Guretzat funtsezkoena herri arnasa da: herrietatik etortzen zaiz-

kigun testigantzak, dokumentuak, pasadizoak, argazkiak... Horri ikerketa lana gehitu behar zaio, noski. Liburuak hari narritibo bat du, txukun idatzita eta ondo dokumentatua.

**Euskal Memoria Fundazioaren sortzaileen artean, Euskal Herriko pertsonaia esanguratsu ugari daude: Erramun Martikorena eta Eñaut Elorrieta abeslariak, Jesus Lezaun apaiza, Joxe Elorrieta ELAko sindikalista eta Lucio Urtubia anarkista, besteak beste.**

Ideologikoki gisa guztietako jendea dago, baina, herri honek bere

historia kontatzeko duen behar bat egiten dugu. Azken bi mendeetan, hemen gertatu dena espainiar edo frantziar kronistek idatzi dute eta ohituak gauden horretara, eta baita hori ikusi behar izatera ere. Gutxitan izaten gara guri gertatutakoaren narratzaile zuzenak. Uste dut horren premia badagoela, eta hori egiarekiko zorra ere badela, premia politikoa den bezala. Fundazioaren inguruan lortu dugun argazki oparoa ikusita, herri honek duen premia zertan datzan ulertzea ez dela zaila uste dut.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN** agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 18:00ak arte hartzen ditugu • [tolosaldean@tolosaldecohitzza.info](mailto:tolosaldean@tolosaldecohitzza.info) / Tel.: 943-65 56 95

**HILETAREN BALIOA** Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pentsatzen dugu pertsona bakartzak bere neumiko hileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Bereskurazena da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

**FUNERARIA VASCONGADA** EHOZKETAK

902 402 900

[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com)

